

ARABAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Administrazio Xedapenak

Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

3799

33/2012 FORU DEKRETUA, ekainaren 19ko Diputatuen Kontseilua-rena. Honen bidez, aldatu egiten da 28/2010 Foru Dekretua, ekainaren 15ekoa, Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseilua sortu eta arautzen duena.

Diputatuen Kontseiluak Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseilua sortu eta arautzen duen araudia onartu zuen 2010eko ekainaren 15ean.

Kontseilu horrek izan duen funtzionatzeko modutik izandako eskarmentuan oinarrituz, bidezko da aldatzea 3. artikulua, Osoko Bilkuraren osaera, bere azken paragrafoan, halako moldez non Osoko Bilkurako idazkaria Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko edozein funtzionario izan daitekeen. Halaber, bidezko da aldatzea 4. artikulua lehen paragrafoa, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak izenda ditzan Lurralde Kontseiluko kideak, eta ondorioz, baita 4 B artikulua ere, bat etorri ez daitezen proposamena egiten duen organoa eta ebazpena ematen duena.

Horregatik, Gizarte Zerbitzuen Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT

Lehenengoa. Ekainaren 15eko Diputatuen Kontseiluaren 28/2010 Foru Dekretua, Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseilua sortzen duena, aldatzea bere 3.1. artikuluko azken paragrafoan. Honela idatzita gelditu da: Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak proposatuta izendaturiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko funtzionarioa jardungo da Kontseiluaren Osoko Bilkurako idazkari, eta hura ez badago, modu berdinean izendaturiko beste funtzionario bat jardungo da haren ordez.

Bigarrena. 4. artikuluko lehen paragrafoa aldatzea, zeina honela idatzita gelditu baita: Kontseiluaren Osoko Bilkurako kideak Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak izendatuko ditu.

Hirugarrena. 4. artikuluko B idatz zatia aldatzea, zeina honela idatzita gelditu baita: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko zuzendari-kudeatzaileak proposatuko du zein kidek ordezkatzuko duten erakundea.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekainaren 19a.– Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRES GUERRA.– Gizarte Zerbitzuen Saileko, MARTA ALAÑA ALONSO.

Foru Aginduak

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

3756

299/2012 FORU AGINDUA, ekainaren 11koa. Honen bidez, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren maiatzaren 23ko 258/2012 Foru Aginduan ezarritako baldintzak bete direla onartzen da. Azken foru agindu horren bidez, behin betiko onartu zen Lantarongo udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 11. aldaketaren espediente, Molinillako 35-4-444B lurzatiaren zati bat berriro sailkatzeari buruzkoa.

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- Maiatzaren 23ko 258/2012 Foru Aginduaren bidez, behin betiko onartu zen Lantarongo udalerriko planeamenduko arau

Disposiciones Administrativas

Decretos Forales del Consejo de Diputados

DEPARTAMENTO DE SERVICIOS SOCIALES

3799

DECRETO FORAL 33/2012, del Consejo de Diputados de 19 de junio, que modifica el Decreto Foral del Consejo 28/2010, de 15 de junio, de creación y regulación del Consejo Territorial de Servicios Sociales de Álava.

Con fecha 15 de junio de 2010 el Consejo de Diputados aprobó la normativa que crea y regula el Consejo Territorial de Servicios Sociales de Álava.

A la vista de la experiencia obtenida en el funcionamiento de dicho Consejo, procede modificar el párrafo final del artículo 3º Composición del Pleno, de modo que la persona secretaria del Pleno pueda ser cualquier funcionaria del Instituto Foral de Bienestar Social. Así mismo, procede modificar el párrafo primero del artículo 4º, de manera que la designación de las personas vocales del Consejo Territorial sea efectuada por la diputada foral titular del Departamento de Servicios Sociales y, consecuentemente, el artículo 4ºB, para que el órgano proponente no coincida con el órgano resolutorio de la designación.

En su virtud, a propuesta de la Diputada Foral de Servicios Sociales y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO

Primero. Modificar el artículo 3, punto 1, último párrafo, del Decreto Foral 28/2010, del Consejo de Diputados de 15 de junio, por el que se constituye el Consejo Territorial de Servicios Sociales de Álava, que quedará redactado de la siguiente forma: Actuará como Secretario/a del Pleno del Consejo el funcionario/a del Instituto Foral de Bienestar Social, que sea designado/a a propuesta del Diputado/a Foral, titular del Departamento de Servicios Sociales, quien será sustituido/a, en caso de ausencia, por otro funcionario/a designado/a de igual forma.

Segundo. Modificar el párrafo primero del artículo 4º que queda redactado de la siguiente forma: La designación de las personas vocales del Pleno del Consejo se efectuará por el Diputado/a Foral titular del Departamento de Servicios Sociales.

Tercero. Modificar el apartado B del artículo 4º que queda redactado de la siguiente forma: Los/las vocales representantes del Instituto Foral de Bienestar Social serán propuestos por el/la Director/a Gerente del mismo.

Vitoria-Gasteiz, a 19 de junio de 2012.– Diputado general, JAVIER DE ANDRES GUERRA.– Diputada de Servicios Sociales, MARTA ALAÑA ALONSO.

Órdenes Forales

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

3756

ORDEN FORAL 299/2012, de 11 de junio, de aceptación del cumplimiento de las condiciones impuestas en la Orden Foral 258/2012, de 23 de mayo, de la Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, por la que se aprobó definitivamente el expediente de 11ª modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Lantarón, relativa a la reclasificación de parte de la parcela 35-4-444B de Molinilla.

I.- ANTECEDENTES

Primero.- Por Orden Foral 258/2012, de 23 de mayo, quedó definitivamente aprobado el expediente de 11ª modificación de las Normas

subsidiarioen 11. aldaketaren espediente, Molinillako 35-4-444B lurzatiaren zati bat berriro sailkatzeari buruzkoa. Horretarako hainbat baldintza jarri ziren bai testuan bai agiri grafikoetan.

Bigarrena.- 258/2012 Foru Agindu horretan bertan ezarri zen, aipatutako baldintzak funtsezkoak ez zirela aintzat hartuta, haiek zuzendutakoan espediente zuzenean igorri behar zitzaiola Foru Aldundiari, berriro jendaurrean jarri beharrik gabe, espediente betearazi beharrekoa dela adieraz zezan, izapideak egin zitezen eta argitara eman zedin.

Hirugarrena.- 2012ko maiatzaren 31n, Lantarongo Udalak espedientearen testu bateratua bidali zion Foru Aldundiari, betearazi beharrekoa dela adieraz zezan, izapideak egin zitezen eta argitara eman zedin

II.- OINARRIAK

Aurkeztutako dokumentazioa azterturik, egiaztatu da aipatutako foru aginduan ezarritako baldintzak bete egin direla, adierazitako aldakuntzak dagozkien testu eta agiri grafikoetan sartuz.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Betetzat jotzea Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren maiatzaren 23ko 258/2012 Foru Aginduan ezarritako baldintzak. Foru agindu horren bidez, behin betiko onartu zen Lantarongo udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 11. aldaketaren espediente, Molinillako 35-4-444B lurzatiaren zati bat berriro sailkatzeari buruzkoa.

Bigarrena.- Ebazpen hau, araudiarekin batera, ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena.- Administrazio bidea agortzen duen ebazpen horren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahalko da, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu ondoko egunetik kontatzen hasita, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren jurisdikzio horretako salan.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekainaren 11.- Ingurumen eta Hirigintza Saileko Diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

LANTARON - MOLINILLAKO UDALERRIKO PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALA

FITXA ZK.	2
LURZATI MOTA	Finkatua
UNITATEAREN AZALERA	2.591,06 m ²
ERAIKITAKO AZALERA	1.523 m ²
ERABILERA NAGUSIA	Bizitegitarako
ERAIKIGARRITASUNA, GEHIENEZ (lurzati gordinaren gainean)	0,256 m ² /m ²
IRABAZIZKO APROBETXAMENDU AGORTUA	Bai (0,89 m ² /m ² > 0,256 m ² /m ²)

BAIMENDUTAKO ESKU HARTZEAK:	
MULTZOA ETA OIN BERRIA ERAISTEA:	Familia bakarreko 2 etxe bakartu

HIRIGINTZA PARAMETROAK:	SUR-4
BIZITEGITARAKO HIRI LURZORUA	1.621,87 m ²
LURZATIAREN ITXITURA LERROA	4,8 m kalearen ardatzetik
ERAIKUNTZA LERROA, GEHIENEZ	3 m lurzatiaren itxituratik.
SESTRA KOTATIK GORAKO ALTUERA, GEHIENEZ	8,50 m. (B+1)
HIRIGINTZAKO GAINERAKO PARAMETROAK	Ikus unitate fitxak- HIRIGINTZA ARAUDIA

NAHITAEZKO LAGAPENAK:	
SISTEMA OROKORRAK.	
TOKI SISTEMAK.	KOMUNIKAZIOAK: 424,23 m ² ESPazio LIBREAK: 511,31 m ² EKIPAMENDU PRIBATUA: 33,65 m ²

BESTE BATZUK
URBANIZAZIO KARGAK:
LURZATIAREN AURREALDEKO GUZTIRAKO URBANIZAZIOA OSATZEKO BEHARRERAZKO DIRENAK.

OHARRAK:

NEKAZARITZA PABILIOIA MANTENDU AHALKO DA JABEAREN JARDUERAK IRAUTEN DUEN BITARTEAN.

Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Lantarón, relativa a la reclasificación de parte de la parcela 35-4-444B, en Molinilla, con distintas condiciones en el texto y en los documentos gráficos.

Segundo.- La misma Orden Foral 258/2012, considerando que las condiciones señaladas no eran sustanciales, estableció que una vez subsanadas se elevara el expediente a la Diputación Foral, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Con fecha 31 de mayo de 2012, el Ayuntamiento de Lantarón ha remitido a la Diputación el texto refundido del expediente, con el fin de que sea declarada la ejecutoriedad del mismo y se proceda a su diligenciación y publicación.

II.- FUNDAMENTOS

Analizada la documentación aportada se comprueba que ha dado cumplimiento a las condiciones impuestas en la Orden Foral mencionada introduciendo las modificaciones señaladas en los textos y documentos gráficos correspondientes.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Dar por cumplidas las condiciones impuestas en la Orden Foral 258/2012, de 23 de mayo, de la Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, por la que se aprobó definitivamente el expediente de 11ª modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Lantarón, relativa a la reclasificación de parte de la parcela 35-4-444B de Molinilla

Segundo.- Publicar la presente resolución, junto con la normativa, en el BOTHA.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 11 de junio de 2012.- La Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.

MODIFICACIÓN PUNTUAL DE LAS NORMAS SUBSIDIARIAS DE PLANEAMIENTO DEL MUNICIPIO DE LANTARÓN - MOLINILLA

Nº FICHA	2
TIPO DE PARCELA	Consolidada
SUPERFICIE DE LA UNIDAD	2.591,06 m ²
SUPERFICIE CONSTRUIDA	1.523 m ² .
USO DOMINANTE	Residencial
EDIFICABILIDAD MÁXIMA (Sobre parcela bruta)	0,256 m ² /m ² .
APROVECHAMIENTO LUCRATIVO AGOTADO	Si (0,89 m ² /m ² > 0,256 m ² /m ²)

INTERVENCIONES PERMITIDAS:	
DEMOLICIÓN DEL CONJUNTO Y NUEVA PLANTA	2 Viviendas unifamiliares aisladas

PARÁMETROS URBANÍSTICOS:	S.U.R-4
SUELO URBANO RESIDENCIAL	1.621,87 m ²
LÍNEA DE CIERRE DE PARCELA	4,8 m. de eje de calle
LÍNEA MÁXIMA DE EDIFICACIÓN	3 m. de cierre de parcela.
ALTURA MÁXIMA SOBRE COTA RASANTE	8,50 m. (B+1)
RESTO DE PARÁMETROS URBANÍSTICOS	Ver fichas de unidades- NORMATIVA URBANÍSTICA

CESIONES OBLIGATORIAS:	
SISTEMAS GENERALES.	
SISTEMAS LOCALES.	COMUNICACIONES: 424,23 m ² ESPACIOS LIBRES: 511,31 m ² EQUIPAMIENTO PRIVADO: 33,65 m ²

OTROS
CARGAS DE URBANIZACIÓN:
LAS NECESARIAS HASTA COMPLETAR LA URBANIZACIÓN TOTAL DE SU FRENTE DE PARCELA.

OBSERVACIONES:
EL PABELLÓN AGRÍCOLA PODRÁ MANTENERSE MIENTRAS DURE LA ACTIVIDAD DE SU PROPIETARIO.